



## **ARARTEKOAK 2006ko OHIKO TXOSTENA AURKEZTEN DIO GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRITARREN ESKAEREN BATZORDEARI**

Batzordeburu jauna, legebiltzarkideok, ohore handiz agertzen naiz Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzorde honen aurrean, Ararteko erakundearen urteroko txostenaren berri emateko. Agerraldi honetan alboan dut Faustino López de Foronda idazkari nagusia. Ez du etortzerik izan Julia Hernández nire ondokoak, aurretiaz onartuak baitzituen ezin saihestuzko konpromiso batzuk.

Nire azalpenean EAEko bi hizkuntza ofizialak erabiliko ditut, euskara eta gaztelania, edukia errepikatu gabe.

Batzorde honen aurrean txostena aurkezteak aukera bikaina ematen dio Ararteko honi, Legebiltzarraren goi ordezkari denez, bere jarduera Legebiltzarrari ezagutarazteko eta legebiltzar taldeek horren edukiaz egin ditzaketen galderei erantzuteko.

Legebiltzarraren araudiak ezarritakoaren arabera, arartekoak badu osoko bilkuraren aurrean bigarren agerraldi bat egiteko aukera. Horregatik, ohikoa den bezala, azken agerraldi horretan azalduko dut gizakien eskubideak zein egoeratan dauden Euskadin. Azalpen hori egiteko, oinarriztat hartuko dut erakunde eskubide bermatzaile honek 2006an egin duen lan osoa, bereziki gertakariren batengatik beren eskubideak gauzatzeko orduan ahultasun edo arrisku egoeran dauden taldeei dagozkien lanak. Zuen aurreko agerraldi honetan labur-labur azalduko dut, ezinbestean, txostenaren edukia, eta zuen esanetara jarriko naiz nire azalpenaren ondoren edo beste edozein momentutan egin nahi dizkidazuen galderei edo eskaerei erantzuteko.

Txostenaren edukiak zorrozki betetzen du Arartekoaren Legeak 32. artikuluan agindutakoa, eta horrexegatik da txostena, nahitaez, hain lodia. Hala ere, txostena behar bezala egituratzeko ahaleginak egin ditugu, ahalik eta erabilerrazena izan dadin: bi aurkibide ditu, orokorra eta alorren araberakoa, kontsultatu nahi diren txosteneko atal zehatz batzuetarako bidea errazteko.

Oro har aurreko txostenen egiturari eutsi badiogu ere, urtero zenbait berrikuntza egiten ditugu, txostena hobetzeko eta sistematikoagoa bihurtzeko.

Teknologia berriak erabiltzeko apustu ausarta eginez, aurtengo berrikuntza nagusia hau da: txostena liburu formatuan ez ezik –horren edukia gure web orrialdean aurkituko duzue orain–, CD-rom formatuan ere emango zaizuela. CD-rom-ak euskarazko eta gaztelaniazko testuak biltzen ditu. Beraz, dagoeneko entregatu ditugu txostena liburu formatuan –hain luzea izanik, bereiz eman dira euskarazko testua eta



gaztelaniazkoa–, txosten hori zabaltzeko aldizkaria eta, gainera, aipatu dugun CD-rom-a.

Egituran ildo berari eutsi zaion arren, hainbat berrikuntza egin ditut metodologiari dagokionez, izan ere, iaz ekin nion etengabe hobetzeko bide horri.

Azpimarratu nahi dut ararteko honentzat eta bere lantaldearentzat gizakiak eta gizakien eskubideak direla gure jardueren azken helburua. Gizakia da gure esku-hartze guztien ardatz, nagusiki beren eskubideak gauzatzeko zailtasunik handienak izan ditzaketen taldeak. Horregatik, euskal herritar guztien benetako berdintasun eraginkorra eragozten duten traba guztiak kentzearen aldeko konpromisoa hartu dudanez, bereziki nabarmendu nahi ditut talde horiekin egindako jarduerak (txosten honen IV. kapituluan agertzen dira). Lehentasunezko arreta behar duten taldeei (alegia, emakumeak; adinekoak; adingabeak; ezgaitasunen bat dutenak; atzerritarrak; baztertuta edo pobrezian bizi direnak; terrorismoaren eta jazarpen-indarkeriaren biktimak; gay, lesbiana eta transexualak; espetxeratuak eta gaitz kronikoak dituzten pertsonak), beste talde bat gehitu diegu: ijito herriari eman beharreko arreta berezia. Talde horren eskubideak babesteko jarduera zehatzak ere egingo dira.

Ikusiko duzueenez, gaiaren araberrako alorren kapituluan, alor berri bat sortu dugu, animaliak babestekoa, eta berriz definitu ditugu azpialor guztiak.

Administrazio-organo jakin batzuek Arartekoari ez laguntzeko jarrerari eustea agerian jartzen duen atalean, 2006. urtean aldatu egin dugu herri-administrazioentzako informazio-eskaerak kudeatzeko modua: orain errekerimendu bakarra egiten zaie eskatutako informazio hori epe barruan eman ez badute. Aldaketa horrek eragina du, jakina, txostenean atal hori azaltzeko moduan.

Azkenik, I. eranskinean agertzen diren kexa-espeditenteei buruzko gomendioak alorrez alor ordenatzea erabaki dugu, ez hurrenkera kronologikoaren arabera. Horrek erabilera erraztuko du.

II. eranskinean berrikuntza gisa biltzen dira Arartekoaren beste ebaizen garrantzitsu batzuk, esate baterako: administrazioen arteko jarduera bat Sestao udalerrira birsortzeko prozesuan, Txingudi aldeko hiri-hondakinak errausteko instalazioaren proiektuari buruzko jarduera bat, edo Plentziako Udalean babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko baldintzen gaineko beste jarduera bat.

## **I. KEXAK BIDERATZEA**



Arartekoaren jarduera nagusietako bat, jakina denez, euskal administrazio publikoren baten jardueren edo jarduerarik ezaren kontrako kexa-espedienteak izapidetzea da, kexok herritarren erreklamazioek eragindakoak izan edota geuk ofizioz sustaturikoak. Txostenaren lehen atalean, Arartekoan alor horretan diharduten pertsonen lana islatzen da, 16 alor materialetan antolatuta. Halaber, I. eranskinean, kexa-espediente zehatzekin zerikusia duten gomendioak sartu ditugu, 28 guztira, horiek ere arloka sailkatuta. Gomendio horiek hainbat administraziori egin dizkiogu, kexaren biderapenean zehar, kasuan kasuko administrazioak ez dituenean aintzat hartu kexa eragin zuen administrazio-jarduera aldatzeko eskatzen zuten argudioak.

Orain dela gutxi Legebiltzarreko lehendakariari urteko txosten hau eman nionean eta gero hedabideen aurrean aurkeztu nuenean, zenbait datu kuantitatibo aipatu nituen, nire ustez, azpimarratu beharrekoak ziren-eta. Dakizuenez, txostenean berariazko atal bat aurkituko duzue, seigarrena, “Ararteko erakundearen jarduera kopurutan” izenburuarekin, III. eranskinarekin batera. Eranskin horrek “grafikoak” izenburua du eta bertan agertzen dira datu kuantitatibo horiek irudikatzen dituzten diagrama guztiak.

Jarraian, kopuruen ikuspuntutik begiratuta, hiru alderdi hauek azpimarratuko ditugu: herritarren eta erakundearen arteko harremana –erakundeak eskaintzen dituen arreta eta informazioaren bidez–; gure jardueraren eraginkortasun-maila; eta kexagileek Arartekoaren esku-hartzeaz egiten duten balorazioa.

- 2006. urtean 4.092 kontsultari erantzun zitzaizkien hiru hiriburuetako bulegoetan, hala telefonoz nola bulego horietara bertaratu diren pertsonenak. Arartekoaren arreta zuzeneko hiru bulegoetan 2.585 bisita egin dira. Jasotako bisita guztietatik 645 kexa burutu dira, hau da, % 24,95. Horrek agerian uzten du arreta zuzeneko bulegoetan aurretiaz egiten den lana oso garrantzitsua dela, izan ere, herritarren kexaren bat eskumenik ez dugulako bideratzerik ez badaukagu, herritarrari informazioa eta orientazioa ematen saiatzen gara, zer egin edo nora jo jakin dezan. Gainera, Internet herritarrek erreklamazioak jartzeko duten bide gisa erabat sendotu da eta erakundearen web orriaren bidez aurkeztutako erreklamazioen kopurua hazten doa urterik urtera ([www.ararteko.net](http://www.ararteko.net)). 2006. urtean, erreklamazioetatik % 31,58, hau da, hiru kexetatik bat, erakundearen web orriaren bitartez heldu zaizkigu.
- Kexen kopuruari dagokionez, 2006an, herritarrek guztira 1.678 kexa aurkeztu dizkiote Arartekoari (joan den urteko 1.459 kexen aldean), kexak egiteko eskura



jarri diren bideetako bat erabiliz: herritarrei arreta eskaintzeko bulegoetako batean, internet bidez edo postaz. Kexa batzuek hainbat sinaduraren babesa izan dute. Kexen % 11,32 kolektiboren batek aurkeztu ditu. Gainera, ofiziozko 64 espediente hasi ditugu.

- 2006. urtean bertan erabat tramitatu diren kexei dagokienez, erakunde honi jarduera bidegabea edo desegokia burutu dela iruditu zaio 396 kasutan, hau da, aztertu diren banakako edo taldekako kexetatik % 36,84tan. Eragindako administrazioak % 95,15tan zuzendu du kexa sortarazi zuen jarduera, irregulartasunen bat, utzikeria edo agintekeria antzeman denean, edo pertsonen eskubideak zaintzeko administrazioak beste era batera jokatu behar zuela uste izan denean. Gainera, kasu gehienetan (% 98,1) ez zen beharrezkoa izan gomendiorik egitea. Hortaz, erakundearen eraginkortasun-maila oso ona dela ikus daiteke.
- Erakunde honen jarduera baloratzeari dagokionez, kexagileek beren borondatez betetzen dituzten eta anonimoak diren inkesten emaitzek agertzen duten bezala, Arartekoaren esku-hartzea oso ontzat edo nahiko ontzat jotzen da (galdera-sortari erantzun diotenen % 85,06k hala uste du). Euren arazoa konpondu ez den edo aurkako emaitza izan duten pertsonen ere ontzat jo dute (% 76,38k). Erakunde honi laguntza eskatu dioten pertsona gehienek (% 85,07k) adierazi dutenez, beste pertsona batzuei ere Arartekora jotzeko gomendatuko liekete administrazioarekin arazoren bat izanez gero.

Arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiazko lanaren garrantzia azpimarratu dugu, bulego horietan ez direlako onartzen hainbat arrazoirengatik Arartekoak ikertu ezin dituen kasuak. Horregatik, 2004ko urtarriletik gure bulegoetara etortzen diren pertsonen eskatzen diegu erakundera egindako bisitan jaso dituzten arreta eta informazioari buruzko balorazioa eta iradokizunak helarazteko, beren borondatez eta izenik jarri gabe. Betetako galdera-sortetako datuak laburbilduz, zera ikusi dugu: herritarretatik % 98,04k beren bisitan eskuratutako informazioa ona edo oso ona izan dela uste dutela, eta bulegoetan egon diren pertsonetatik % 96,07k “beti” edo “kasu batzuetan” Arartekora jotzeko gomendatuko lieketela administrazioarekin arazoak dituzten pertsonen.

## **II. TXOSTEN BEREZIAK, LEHENTASUNEZKO ARRETA BEHAR DUTEN TALDEEKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUERAK ETA GIZA ESKUBIDEAK SUSTATZEKO EKINTZAK**



Ararteko erakundearen jarduerak ez dira kexak bideratzera mugatzen. Txosten bereziak prestatzea ere badagokio, gizakien eskubideak zaintzearekin eta ondo administratzearekin –hau da, herri-administrazioei exiji dakiekeen jarduera egokiarekin– lotutako gai ei buruz. Orobat, Arartekoa Eusko Legebiltzarraren goi ordezkaria da, herritarren eskubideak babesteko sortua, batez ere herritarrak beren eskubideak gauzatzekoan babesik gabe baldin badaude, edota ahultasun edo arrisku egoeran. Beraz, Arartekoa gizaki guztien legebiltzar defendatzailea da, bereziki adingabe, emakumeen eta gizonen berdintasun, adineko, ahalmen urritu, etorkin, transexual eta abarren legebiltzar defendatzailea, eta lan egin behar du pertsona guztiak –norberaren aferak edozein izanik ere– lehen mailako herritarrak izan daitezen eta beraien eskubide guztiak behar bezala zaindu daitezen. Txostenaren hirugarren atalean aurkituko duzue iaz landu genituen txosten berezi ororen berri. Laugarrenean, “lehentasunezko arreta behar duten taldeak” deritzegun 11 taldeen arazoez burutu ditugun jarduerak azaltzen dira, eta bosgarrenean, berriz, giza eskubideak errespetatzeko kultura suspertzeko asmoz egin ditugun jardueren berri ematen da.

Txosten bereziak paratzea eta gero horien bilakaera aztertzea funtsezko tresna da erakunde honi dagokion zeregina betetzeko, hau da, eskubideak bermatzeko. Kexan azaldutako kasu zehatzak gainditzea ahalbidetzen du, eta txostenetan gai horiek oro har tratatzea.

\* \* \* \* \*

2006ko ekainaren 14an eman genion Legebiltzarreko lehendakariari ***Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna izenburuko txosten berezia.***

“Larriki baztertuta dauden pertsonak” kontzeptuaren bidez, baztertuen taldean bertan baztertuta daudenak aipatzen ditugu; horiek arreta sozialeko sare normalizatuetatik kanpo daude. Batzuetan, lotura falta hori norberaren ezintasunaren edo zailtasunaren emaitza izaten da, eta beste batzuetan, berriz, sistema horrelako egoeretara moldatu ezinaren ondorio, gizarte baztertzailerik edo ahulenak artatzeko gauza ez den gizarte baten ondorio.

Azken urteotan aldaketa nabarmena izan da pertsona horien profilean. Prototipoa edo eredu dagoeneko ez da gizon bakartia, adin ertainekoa, bere poltsak hartu eta batetik bestera ibiltzen zena, nahasmendu psikologikoaren ageriko seinaleak zituen. Gaur egun, oso ezaugarri desberdinak dituzte gaueko harrera-zentroetara, jantokietara edo eguneko zentroetara joaten diren pertsonak:



- horietatik asko etorkinak dira (EAEko baliabide horietan artatutako pertsonen artean, %50 gutxi gorabehera etorkinak dira);
- gero eta gazteagoak dira (gaueko zentro batzuetan % 60 inguru dira 30 urtetik beherakoak);
- %20ren bat emakumeak dira;
- zenbaitetan, familia osoa geratu da etxerik gabe;
- pertsona horietatik asko droga-kontsumitzaile aktiboak dira;
- beste asko, berriz, buru-gaixoak...

Bazterkeriak orain duen ezaugarrietako bat, beste garaietatik bereizten duena, zera da: anitz kasutan ez direla egoera ahulean dauden pertsonak, baizik eta bizimodu egituratua duten pertsonak, une jakin batean eta arrazoi ezberdinengatik bazterkeria larrian jausi direnak. Orduan, aniztasuna hazi egin da eta, hortaz, beharrak ere aldatu egin dira.

Pertsona talde homogenea ez den arren, badira zenbait ezaugarri gizartean larriki baztertutako pertsona gisa identifikatzen dituztenak:

- Etxerik gabeko pertsonak dira, hau da, bizileku egonkorrik edo bizitzeko etxerik ez dutenak.
- Baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak dira, edo baliabideok behar bezala eta iraupeneko ekonomia-estrategiak erabiliz nekez kudea ditzaketenak.
- Baina, batez ere, etxerik gabeko pertsonak dira, ez baitute familiarekin inolako harremanik eta gizartetik eta familiarengandik erabat deserrotuta baitaude, inolako laguntza pertsonal eta sozialik gabe; gizartetik eta bere dinamiketarik kanpo bizi dira eta horien aurrean gainerako biztanleak baino ahulagoak dira.

Txosten horretan antzeman diren zortzi arazo nagusietako batzuk azpimarratu nahi ditut:

- Hutsune izugarriak antzeman dira araudiari dagokionez eta pertsona horiek artatzeko eskumena nork duen argitzeko orduan.
- Baliabideak ez daude koordinatuta, ez dago jarduteko irizpide komunik, ez baliabide batetik bestera aldatzeko protokolorik, ez sareko lanik...



- Behar batzuei erantzutea zaila izaten da, arrazoi ezberdinengatik: ia baliabide guztiak hiriburuetan pilatzen direlako; askotan ordutegietan ez direlako aintzat hartzen asteburuak eta jaiegunak; baliabide horietan sartzeko dauden baldintzengatik; artatu behar diren profil berriengatik (familiak, etorkinak, patologia duala duten pertsonak...).
- Administrazioek oso gutxi hartzen dute parte pertsona horiei erantzuna ematen, batik bat etxebizitzaren eta osasunaren arloetan.
- Gizartea sentibera bihurtzeko arazoak daude, baita pertsona horien gizarte-irudiarri buruzkoak ere; horien ondorioz, batzuetan, zenbait baliabide ez dira onartzen, ez behintzat gertu eta normalizatuta dagoen inguru batean kokatu nahi direnean.
- Arazoak daude programen jarraitutasuna bermatzeko, diru-laguntza nahikoak edo zerbitzu horietan lan egiten duten profesionalentzat lan-baldintza egokiak lortzeko.
- Baliabide batzuk gainezka daude...

\* \* \* \* \*

Bestalde, joan den abenduaren 19an, bi urteko lanaren ondoren, Legebiltzarreko lehendakariari eman genion ***Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan*** txostena.

Txosten hori gogoan izango duzue, beharbada, aurtengo otsailaren 7an aurkeztu bainion batzorde honi, baina berriz azpimarratu nahi ditut azterturiko errealitate horren alderdirik kezkarrienak:

- 1) Banaketa antzematen da irakasleen eta familien artean.
- 2) Sektore batzuek gutxi parte hartzen dute ikastetxeetako bizikidetza erregulatzen duten arauak egiten, berrikusten eta aplikatzen.
- 3) Zenbait jokabide “normaltzat” hartzen dira; horrek zalantzan jartzen ditu errespetuzko bizikidetzarako ezinbestekoak diren hainbat balio.
- 4) Ikastetxeetatik kanpoko agente batzuek ikastetxeetan eragina izaten dute, ez beti ona gainera.
- 5) Irakasle askorengan ezinegon edo gogo falta handia nabari da, beren burua gainez eginda sentitzen dutelako.
- 6) Zenbait jokabideren aurrean agerturiko erreakzioa ez da nahikoa, edo motelegia da, eta horrek zigorgabetasun sentsazioa sortzen laguntzen du.



7) Tratu txarren biktimak bakarrik eta minduta daude.

\* \* \* \* \*

2006. urtean *Gazteei zuzendutako etxebizitza politika publikoak EAEn* txosten berezia landu da, eta duela gutxi amaitu da idazketa. Momentu honetan, edizio fasean dago, eta aurki aurkeztuko zaio Legebiltzarreko lehendakariari.

Aurreratu dezakegu txosten horretan gaur egun EAEko gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten arazoak azaltzen dira eta, horrela, txostenaren gai nagusia zehazten da. Ondoren, arazo horiek eta sektore publikoak emandako erantzunak testuinguruan kokatzeko, etxebizitza-politikaren eta gazteentzako etxebizitza-politikaren alderdi nagusiak aipatzen dira, konparazioak eginez, bai Estatuko egoerarekin, bai Europakoarekin. Txostena osatzeko, sakon aztertu dira azken urteotan EAEn gazteentzako etxebizitza-politika publikoen esparruan garatu diren ekintza eta ekimen nagusiak.

\* \* \* \* \*

Gainera, beste txosten batzuk egiten hasi gara 2006. urtean. Prestakuntza fase ezberdinetan daude, baina, guztiak oraindik hasi berriak. Honako gaiok jorratzen dituzte:

- **Adingabeei balioak helarazteari** buruzko txosten berezia.

Gure ustez, balioak helarazteaz hasi duguna bezalako azterlan batek ekarpen onak egin diezazkioke gizartean dagoen eztabaidari, baita erakundeen ekimenei ere.

Helburua da ezagutzea zeintzuk diren gaur egun balioak jasotzeko bideak eta zenbateraino dituzten gure adin txikikoek barneraturik giza eskubideak errespetatzearen aldeko balio etikoak eta, ondorioz, ea kontrabalioak gaitzesten dituzten, esaterako indarkeria edo erasoak justifikatzea, sexismoa, matxismoa, arrazakeria, xenofobia edo homofobia.

\* \* \* \* \*

- **Terrorismoaren biktimen egoera eta beharren aurrean Euskadin dagoen erantzun instituzionala** gaitzat hartzen duen txosten berezia.





Helburua da erakundeek biktimen beharrei zein erantzun ematen dieten. Araudia eta legebiltzar erabakiak betetzen ote diren aztertu nahi dugu.

\* \* \* \* \*

- Txosten berezia **gizartean esku hartzeko sektoreko lan-baldintzez**.

Kontuan hartu behar da gaur egun, gure erkidegoan sektore adierazkorrenetako batzuentzat dauden gizarte-arretako zerbitzu asko elkarteek edo gizarte ekimeneko erakundeek kudeatzen dituztela. Sektore horien artean daude, adibidez, baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak, babesik gabeko adingabeak, pertsona ezinduen edo mendekotasun maila handiago edo txikiagoa duten adinekoak. Kudeaketa horretarako, administrazioen diru-laguntzak jasotzen dituzte, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren sailek, foru aldundietako sailek, udalek eta mankomunitateek emanak. Izatez, esparru publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bada, baina ez du nahiko litzatekeen bezalako argitasunik edo araudirik.

Arartekoak ikerketa berri hori ez du hasi laneko kontu soilengatik (aldeen artean negoziatu beharrekoak), baizik eta, batez ere, arretaren kalitatean eragin kaltegarria duelako. Gainera, egoera horrek, kasu batzuetan artatutako pertsonen eskubideetan du eragina, baita zerbitzu batean edo bestean baldintza ezberdinetan lan egiten duten pertsonen eskubideetan ere: profesional/erabiltzaile ratioak, langileen kualifikazioa, zerbitzuen baldintzak, prestakuntza jasotzeko aukerak, ekipoen eta programen jarraitutasuna...

\* \* \* \* \*

- **EAEko arreta soziosanitarioaren egoerari buruzko txosten berezia**.

Txosten horretan, besteak beste, egindako jarduerak aztertuko dira, baita aukeratutako ereduagatik edo kalitateko arreta soziosanitarioak izan behar dituen ezaugarri eta beharregatik antzeman diren zailtasunak ere. Eskumenen banaketak berekin dakartzan zailtasunak, zerbitzuen antolamendua, garapenean agertzen diren aldeak eta zerbitzuen finantzaketa aztertzen ahaleginduko gara.

Txosten hori 2007an bukatuko da. Gainera, horren bidez, Legebiltzar honek 2006ko azaroaren 24ko osoko bilkuran egin zigun eskaerari erantzuten saiatuko gara.

\* \* \* \* \*



Bukatzeko, 2006. urtearen amaieran Legebiltzar honek gazteen alkoholzaletasunezko arazoez bideratu zuen legez besteko proposamenarekin bat etorriz, gai horren gaineko txosten berezi baten mamia eta metodologia zehazten jardun dugu. Txosten hori 2007an jarriko dugu abian.

\* \* \* \* \*

Epe honetan jarduera ugari ere gauzatu dugu **giza-eskubideak errespetatzeko kultura sortzen laguntzeko.**

Erakunde honentzat bereziki garrantzitsuak dira gizarte zibilarekiko harremanak eta, zehazkiago, antolatutako gizarte zibilarekikoak. Horregatik, bilerak eta harremanak izaten ditugu elkarteekin eta gizarte eragileekin.

Ikerketako beka ematen jarraitu dugu.

Ikerketa aplikatuko beka bat eman dugu, faktore sozioekonomikoek osasunean duten eragina aztertzeke eta, zehazkiago, lanean jardun eta, aldi berean, beste pertsona batzuk zaintzen dituzten emakumeen osasun-egoera aztertzeke. Lana oso aurreratua dago eta aurten argitaratzeko moduan izango da.

Era berean, beka bat eman dugu “emakume lesbianak Euskadin agerikoak ote diren eta gizartean parte hartzen ote duten” aztertzeke.

Bestalde, 2006an hainbat argitalpen atera ditugu. Horrela, Padre Francisco de Vitoria Giza Eskubideen sailean bi lan argitaratu ditugu, amaitutako bi ikerketa-bekari dagozkionak.

- Sail horretako 9. liburukia argitaratu da, honako izenburu honekin: *Alternativas a la cárcel en Euskadi: el trabajo en beneficio de la comunidad.*
- Bestalde, sail horretako 10. liburukia argitaratu da, honako izenburu honekin: *Derechos fundamentales y Constitución Europea.*

Beste alde batetik, aipatu dugun bezala, Juan San Martín izeneko sail berria hasi dugu. Sail horretako lehen liburukia hauxe da: *Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban.*

Amaitzeko, “Jornadas sobre derechos humanos” izeneko bildumako 8. argitalpena aipatu behar dugu: *El trabajo en el siglo XXI: perspectivas de futuro*; bertan,



EHUko udako ikastaroetan izenburu beraz egin zen udako ikastaroko ponentziak eta komunikazioak biltzen dira.

\* \* \* \* \*

**Autonomia erkidegoetako herriaren defendatzailei buruzko aldizkaria** ateratzen jarraitu dugu, *Derechos Ciudadanos* deritzana. 2006an argitaraturiko zenbakian “hirigintza jarduerak gizartean eta ingurumenean duen eragina” aztertu da.

\* \* \* \* \*

**EHUren Udako Ikastaroetan** zenbait jardunaldi egin ziren gai honen gainean: “Arartekoa: XXI. menderako ombudsmana”.

### **III. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA**

Ararteko erakundeari eman zaizkion eginkizunak beteko badira, ezinbestekoa da bere kontrolpeko administrazioen laguntza. Administrazio horiek beharrezko informazio guztia eman behar dute, bideratzen ari diren espedienteak arrazoi bidez ebazteko, eta, gainera, ezarritako epeetan egin behar dute hori, ikerketa eta kontrol lanek gutxienezko eraginkortasuna izatea nahi bada behintzat.

Urteko txosten honen VII. atalean xeheki adierazita aurkituko duzue nolako jarrera izan duten herri-administrazioek, emandako epean lagundu ez dutenak berariaz aipatzen direla.

Arestian adierazi dizuedanez, orain arte hiru aldiz ere eskatzen zitzaien herri-administrazioei informazioa bidal ziezagutela, eta gestio horiek emankorrek ez baziren, ohartarazpen bat igortzen zitzaien, Arartekoari ez laguntzea lege-haustea izan daitekeela jakinarazteko. Jarduera horrek gehiegi luzatzen zuen kexak kudeatzeko prozedura. Horregatik, orain errekerimendu bakarra bidaltzen diegu. Errekerimendua bidali zitzaienetik hiru hilabete baino gehiago igaro eta gero, txosten hau ixteko orduan oraindik eskatutako informazioa bidali gabe jarraitzen zuten honako administrazio hauek: Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Gaietako Departamentuak (bi aldiz), Gasteizko Udalak, Alonsotegiko Udalak, Zornotzako Udalak (bi aldiz), Getxoko Udalak, Lekeitioko Udalak, Trapagarango Udalak, Zamudioko Udalak, Zaratamoko Udalak, Donostiako Udalak (hiru aldiz) eta Ibarako Udalak. Eta bada gauza larriago bat ere: administrazio batzuek, txostena ixteko unean, artean bidali gabe zeukaten 2006.



urtea baino lehen eskatutako informazioa. Horrela, aipatu behar ditut Zornotzako Udala, Bilboko Udala, Sestaoko Udala, Zaratamoko Udala, Zeanuriko Udala, Donostiako Udala (bi aldiz) eta Irurako Udala.

#### **IV. GOMENDIO OROKORRAK**

Azkenik, txosten honetan egindako hiru gomendio orokorrak laburki azalduko ditut. Izenak adierazten duen bezala, gomendio orokorren bidez herritarren kopuru zehaztugabe batek duen arazoari heldu nahi diogu, banakako kasuen ebazpen zehatza gaindituz, beraz. Aurten egindako gomendioak txosten honen bigarren atalean aurkituko dituzue eta gaiok jorratzen dituzte:

– **Adin tartearen garrantzia adoptatzeko egokitasuna erabakitzerakoan.**

Ondotxo dakizueenez, 2005eko maiatzaren 12an, hiru aldundiek hitzarmena sinatu zuten adopzioetarako egokitasun irizpideen gainean. Hitzarmen horrek zenbait aldaketa ekarri zituen, bere garaian oso onuragarritzat jo genituenak. Hala ere, belaunaldien arteko aldeari dagokionez, foru administrazioek, ados jarrita, adin-muga bat jartzea erabaki zuten. Horrela, adingabe bat adoptatu nahi duten pertsonak adopziogaiak baino 42 urte gehiago izango dituzte gehienez (bikotekide gazteenaren adina aintzat hartuta); adopziogaiak, gainera, seme edo alaba biologikoak edo aurretik adoptatutakoak baino gazteagoa izan behar du, familian seme-alaben ordena naturala alda ez dadin.

Batzuetan, betekizun horrek zuzenean eragozten du egokitasun ziurtagiriaren eskabidea tramiterako onartzea. Beste batzuetan, eskabidea izapidetu arren, emaitza bera izaten du, izan ere, kasuan kasuko txosten psikosozialak, 42 urteko muga esplizituki aipatu gabe ere, adin tartea handiagoa izatea adingabearen garapenerako arriskutsua izan daitekeela iragartzen du. Horixe da, hain zuzen, hainbat pertsonak Arartekoari azaldu dizkieten kexen sorburua, bada, pertsona horiei, gainerako irizpide psikosozialak alde dituzten arren, arrazoi horrexegatik ukatu zaie adoptatzeko egokitasuna.

Gomendioan, adoptatzaileen adinak adoptatuen garapenean izan dezakeen eragina hausnartzen da, eta, bukaeran, baldintza hori baliorik gabe utz dadin gomendatzen da (alegia, adoptatzaileak gehienez adopziogaiak baino 42 urte gehiago izan behar dituela dioena, adoptatzeko egokitasuna lortzeko baldintza gisa). Adin tartearak adingabearen garapenean izan dezakeen eragina baloratzeko, gomendatzen dugu belaunaldi arteko tartean ez dadila ezar muga kronologiko absoluturik, baizik eta



kasuak banan-banan hazta daitezela, kasu bakoitzean gertatzen diren zertzelada pertsonal eta familiako guztiak osorik eta banaka aintzat hartuta.

- Bigarren gomendio orokorra, berriz, hauxe izan zen: **“Oinarrizko errentaren prestazioa arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuan aipatzen den bizikidetzako unitate ekonomiko independentea berrikusteko beharra”**.

Jakina denez, maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak –Gizarte bazterkeriaren kontrakoak– bazterkeriaren kontra borrokatzeko zenbait tresna ezarri zituen, baita bi diru-laguntza ere: oinarrizko errenta deritzana (lehen, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera, GGD) eta gizarte larrialdietarako laguntzak (GLL).

Laguntza horiek eskuratzeko, elkarren artean lotura estua duten funtsezko bi kontzeptu daude: bizikidetzako unitate ekonomiko independentea eta etxebizitza edo ostatu independentea. Zenbait egoeratan, horiek arau bidez tasatuta egoten dira.

Azken urteotan, bizitzeko bitartekorik ez izan arren, lege horretan ezarritako prestazio ekonomikoak ukatu zaizkien pertsonen kasuak ezagutu ditugu. Bizikidetzako unitate ekonomiko independentea kontuan hartzeagatik gertatu da hori, bada, arestian aipatu bezala, etxebizitza edo bizileku independenteari lotuta dago. Gainera, ikusi ahal izan dugu lurralde historiko bakoitzean desberdin aplikatzen dela. Horrela, gerta daiteke pertsona batek, egoera berean, lurralde historiko batean laguntza lortzea eta beste batean, berriz, ez.

Babestu beharrekoak dira honako egoera hauek:

- Oraindik heziketa-garaian dauden 18 urtetik gorako seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak.
- Logela bana alokatuta etxebizitza partekatzen duten pertsonak, guztiak edo batzuk behar gorrian daudenean.
- Alokairuko etxebizitza partekatzen duten pertsonak, guztiak edo batzuk behar gorrian daudenean.
- Familia banantzeagatik edo lan ezegonkortasunarekin edo osasunarekin zerikusia duen beste arazoren batengatik denboraldi batez laneko diru-sarrerak lortu ezinik beren senideekin bizitzera joan behar duten pertsonak. Babes hori aldi baterako izango da eta bazterkeria-egoera larriagoak saiheste aldera.

Azken batean, gure ustez, neurri zuzentzaileak hartu behar dira, oinarrizko errentaren eta gizarte larrialdietarako laguntzen eskakizunak egungo testuingurura egokitzeke. Funtsezkoa da azalduko arazoei erantzuna ematea, premia-egoeran dauden pertsona



guztiak jaso ahal izan ditzaten bazterkeriari aurre egiteko dispositiboetan ezarritako laguntzak.

- Bukatzeko, hirugarren gomendio orokorraz mintzatuko naiz: “**Erreklamazio ekonomiko-administratiboak Euskal Herriko udal zergen eremuan**”.

Gure zerga-alorreko legerian, tradizio luzea dago administrazio-ekintzen kontra jotzeko berariazko administrazio-bidea izateaz, administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo aurretik. Organo horiek doakoak dira, independenteak, espezializatuak eta ia-ia jurisdikzionalak.

Garrantzitsua da azpimarratzea organo horiek, udal autonomiaren printzipioa zorrozki errespetatuz, tokiko ogasunen zergadunen eskubideak bermatzeko tresnak direla, izan ere, gehienetan, zergadunek ez dute administrazioarekiko auzibidera joko beren eskubideak babesteko.

57/2003 Legeak –tokiko gobernua berriztatzekoak– adierazten duenez, erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazten espezializatutako organoak sortu behar dira zehazten diren ezaugarriak betetzen dituzten udalerrietan

Une honetan, Euskadin ez da erabat bete 57/2003 Legean emandako agindua. Gainera, uste dugu legeak ezartzen duen agindutik haratago joan beharko litzatekeela, tokiko zerga-egintzen legezkotasuna kontrolatzeari dagokionean euskal zergadun guztiak berme posibilitate berdinak izan ditzaten.

Horrela, Bizkaian, Bilbok bere auzitegi ekonomiko-administratiboa du, baina Getxok eta Barakaldok ez dute halakorik sortu.

Gipuzkoan, Donostiako Udalak bere auzitegi propioa sortu du. Gainera, Foru Aldundiaren Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak bere hartan dirau, auzitegi ekonomiko-administratiborik ez duten lurralde historikoko udalerrien erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko organo gisa.

Arabian, Gasteizko Udalak ez du bere auzitegi ekonomiko-administratiborik eta Arabako gainontzeko udalerriak ez dira baliatu Foru Aldundiaren organo juridikoaz.

Adierazitako guztiagatik, Euskal Erkidegoko udalei gomendioa luzatu diegu, babes judizial efektiborako eskubidea zabaltasun osoz betetze aldera, helegite ekonomiko-administratiboaren bidea berrezar dadila eskatuz.



Horregatik, auzitegi ekonomiko-administratiborik sortu ez duten eta dagokion foru aldundiaren auzitegi juridiko-administratiboaz baliatu ez diren “biztanle askoko udalerriek” indarreko legeria bete behar dute, horrelako organo bat sortuz.

\* \* \* \* \*

Bukatzeko, zuen aurrean nire esker ona adierazi nahi diet orain Ararteko erakundean nire ardurapean diharduten guztiei. Langile horietako bakoitzaren lan gartsurik gabe Ararteko erakundeak ezingo luke, kopuruz eta kalitatez, egiten duen moduan lan egin. Eta zuei denoi biziki eskertu nahi dizuet zure jarrera, beti harkorra eta ona, Ararteko erakundearekiko eta neurekiko, baita agerraldi honetan eskaini didazuen arreta ere.

Beharrezkoak iruditzen zaizkizuen argibideak emateko prest naukazue.

Eskerrik asko.